




Txistukarien neutralizazioa  
mendebaleko euskaran XVI-XVIII.  
mendeen bitartean





# Corpusa




## XVI. mendea

- Juan Zumarragakoaren gutuna (1537)
- Landucciren hiztegia (1562)
- Garibairen errefrau bilduma (1571)
- *Refranes y Sentencias* (1596)
- Betolatzaren dotrina (1596)
- *Lazarragaren eskuizkribua* (1567-1602)



## XVII. Mendea


- *Egiaren Kanta* (1638-1650)
- *Modo breve de aprender la lengua Bizcayna* (1653)
- Kapanagaren dotrina (1656)



## XVIII. Mendea


- Eibarko kopia zaharrak (1721)
- Arzadunen dotrina (1731)
- Gamizen olerkiak (1760~)
- Olaetxearen dotrina (1763)
- De la Quadraren dotrina (1784)

# Txistukarien grafia




- Grafia arruntak:
  - <z>, <c> eta <ç> bizkarkariak
  - <s>, <ss> eta s luzeak apikariak
  - <x> eta <ch> sabaikariak
- Idazle gehienek ez dituzte afrikatuak eta frikariak bereizten, sabaikarietan salbu.
  - Saiakerak: Zumarraga, Landucci, *RS*, Mikoleta, Gamiz...
  - Olaetxea eta De la Quadra bereizketa sistematikoki egiten duten lehenak.

# Neutralizazioa





## ● XVI. mendean

- Heskari aurreko posizioan frikari bizkarkari eta apikarien arteko nahasketa dago aztertutako idazle guztietan.
- Lazarragak herskari aurrean, bokal artean, hitz hasieran eta hitz amaieran.
- *RSn* hitz amaieran ere bizkarkaria beharko lukeen tokian apikariak daude zenbait kasutan.



## ● XVII. mendea

- *Egiaren Kantan* herskari aurreko posizioan baino ez dira nahasten frikari bizkarkari eta apikariak
- Mikoletaren lanean bost igurune fonologikoetan ikus daitezke apikari eta bizkarkarien arteko nahasketak, bai afrikatuetan eta baita frikarietan ere. Afrikatuen adibidea: *asseguin* vs. *azeguín*
- Kapanagaren herskari aurrean eta bokal artean nahasten ditu frikariak.



## ● XVIII. mendea

- Aro berri baten hasiera; Bizkaiera Zaharra atzean utzi da eta garai honetako idazleek Larramendiren eragina dute (Eibarko kopletan izan ezik).
- Eibarko kopletan frikarien nahasketa herskari aurrean, bokal artean eta hitz amaieran.
- Arzadunek bizkarkariak eta apikariak bereizten ikasi zuen, ondorioz, nahasketaren arrasto gutxi: *gustiai, ofrecietandeuzudaz, nos, nasala eldutenas*. Durangarra izanik arrasto gehiago egon beharko lirateke.





- Olaetxea: ez dago jakiterik txistukariak zein herriko hizkeratan idatzi zituen. Idazle jantzia zen eta ondorioz, txistukariak bereizten ikasi zuen, horregatik ageri dira neutralizazioaren arrasto gutxi.
- Gamizek frikari apikariak eta bizkarkariak ingurune guztietan nahastu eta afrikatuak bokal artean.
- De la Quadra: bizkarkari eta apikariak ingurune fonologiko guztietan nahasten ditu. Ezin da jakin idatzitako txistukariek zein hizkera islatzen duten.



- Arzadun eta Olaetxearen lanetan sabaiaurreko frikaria apikari bilakatu da hitz amairan:  $iz > ix > x > s$
- XVII. mendean Kapanagak *noxda* eta XVIII. mendean *nos*, *nas*...

# Ondorioak








- Geografikoki:

- foku garrantzitsu bi (Bilbo eta Araba ipar-ekialdea)?

- Estibaliz Sasiolakoaren poemak Lazarragarena ote?



- Herskari aurreko posizioan hasi ziren frikari apikari eta bizkarkariak nahasten. Ondoren gainontzeko inguruneetara hedatu zen, eta, azkenik, afrikatuetan hasi ziren bizkarkari eta apikarien arteko nahasketak.
- XVIII. medean hitz amaierako sabaiaurrekoa apikari bilakatzen da.



**ESKERRIK ASKO!**